

COVID-19rekin egiaztatu da ekonomiaren uzkurdua-etapetan enplegua mantendu daitekeela

2021ean, negozioazio kolektiboko euskal esparruaren berreskurapena finkatu zen

Sektoreko hitzarmenek garrantzia handiagoa dute enpresakoen aldean

2022an, Gizarte Segurantzako afiliazioa handitu egin zen, eta, aldi berean, kontratu-kopurua jaitsi egin zen. Horrek adierazten du enpleguaren kalitatea hobetu zela

2022ko lehen hiruhilekoan, langabezia-tasa 2019koaren azpitik zegoen

EAEn sinatutako sektore-hitzarmenek jasotzen dituzte soldata-igoera handienak, eta hitzarmenok eragiten diete langile gehienei

Enpleguaren ikuspegitik, 2021eko balantzea nahiko ona da ikuspuntu kuantitatibotik, eta baita lan-egonkortasunari dagokionez ere. Eta 2022ko lehen bost hilabeteetako behin-behineko balantzea ere ontzat eman daiteke, ziurgabetasun nabarmenak gorabehera. Hala ere, negozioazio kolektiboaren emaitzak, txosten hau argitaratu arte, ez dira baikor egoteko modukoak, nahiz eta prozesuek irekita jarraitzen duten eta negozioazio-jarduerak bere horretan jarraitzen duen.

Lan Harremanen Kontseiluaren Urteko Txosten Soziolaboralak, egun gertatzen ari diren aldaketa bizkorren ondorioz ematen dituen datu aldakorrez haratago, epe ertainerako balorazioak eta diagnostikoak egiteko aukera ematen du, eta agerian uzten du COVID-19aren krisiaren irakaskuntzetako bat zera dela, badirela mekanismo eraginkorrak atzeraldi-garaietan enplegua babesteko eta mantentzeko, aldi baterako doikuntza-neurriak erabiliz ekonomiaren uzkurdua-faseei aurre egiteko eta errentak babesteko mekanismoak erabiliz kontratuak etenda daudenean, hain zuzen ere EAEn gertatu den moduan, Elkarrizketa Sozialaren Mahaian lortutako akordioetatik abiatuta.

2021 urtea

Euskal Autonomia Erkidegoan, BPGaren hazkundera %5,6koa izan zen 2021ean, gure historia hurbileko jaitsierarik handiena 2020an erregistratu ondoren (-%9,9).

Alderaketa eginda, EAEko BPGren hazkundera Estatu osokoa (%5,1) baino puntu erdi handiagoa izan zen, eta Eurogunekoa (%5,4) baino bi hamarren handiagoa.

BJAren arabera enpleguaren bilakaerari dagokionez, 2021eko laugarren hiruhilekoan 945.500 landun zeuden, 2020an baino 14.100 gehiago (%+1,5), baina 7.500 enplegu falta ziren pandemiaren aurretik (953.000) enplegatutako pertsonak berreskuratzeko.

Iazko ekitaldian, 861.726 kontratu jakinarazi ziren, 2020an baino %22,5 gehiago, eta azaroan eta abenduan 2019an hilabete berberetan zeuden antzeko mailak lortu ziren.

2021ean, enpleguak bilakaera hobea izan zuen sektore publikoan, 2019an baino 12.500 soldatapeko gehiago izan baitziren (+%8,4); aldi berean, 12.400 soldatapeko gutxiago izan ziren sektore pribatuan (%2).

Jarduera ekonomikoa berraktibatu zenean, nabarmen jaitsi zen 2021ean izapidetu ziren enplegu-erregulazioko espedienteen kopurua: 32.723 pertsonari eragin zieten. Horietatik %97,2 aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteengatik izan ziren, eta %2,8 lan-harremana amaitzeko espedienteengatik. Aldi baterako lan-erregulazioan sartutako 31.809 pertsonetatik, ia %90 lan-harremana aldi baterako eteteko espedienteengatik izan ziren (barne-malgutasuneko neurriak erabiliak). Gainerakoei, 3.332 pertsonari, lanaldia murriztu zitzaizkien.

Negoiazio kolektiboko euskal esparruaren berreskurapena finkatu da

2021ean 258 hitzarmen erregistratu ziren, eta, ondorioz, 118.142 pertsonarentzako lan-baldintzak berritu ziren. EAEn esparruan erregistratutako akordioak (186 hitzarmen, sektoreko 13 eta enpresako 173) gehiago izan ziren EAEn eragina duen estatukoak baino (72 hitzarmen erregistratu ziren 2021ean). Hala ere, aldeak txikiagoak dira akordio horiek zenbat langileri eragin dieten kontuan hartzen badugu: 61.345 langile EAEn negoziatutako hitzarmenen kasuan, eta 56.797 langile EAEn eragina duten estatu-eremukoen kasuan.

2021aren amaieran, EAEn negoziazio kolektiboko akordioak dituzten langileen %45,9k bere hitzarmenak eguneratuta zituzten (indarraldi osoa); %44,3k hitzarmenak luzatuta zituzten, ehunekorik handiena dena 2015etik; eta %9,8k bere hitzarmenak iraungita zituzten. Hitzarmena iraungitako langileak alde batera utzita, %69,8 EAEn negoziatutako akordio baten babespean zegoen, eta ehuneko hori 2020an erregistratutakoaren ia berbera da (%69,7), eta 2019koa baino handiagoa (% 67,7); horrek negoziazio kolektiboko eremu propioen susperraldia berresten du.

Langileen %72,8 negoziazio sektorialaren mende dago euren lan-baldintzak zehazteko, eta gainerako %27,2 enpresa-mailako hitzarmenen negoziazioen

mende. Erregistratutako enpresako hitzarmen berrien kasuan, beheranzko joerak jarraitzen du, eta halaber, gero eta gutxiago dira horien eraginpeko langileak. Zehazki, 2021ean 28 enpresa-hitzarmen berri erregistratu ziren, 1.552 pertsonari babesa ematen zietenak; 2020an, berriz, 41 hitzarmen berri erregistratu ziren, 2.679 pertsonari eragiten zietenak.

2021eko batez besteko soldata-igoera %1,23koa izan zen

EAEn indarrean dauden hitzarmenetan itundutako batez besteko soldata-igoera, EAEn eragina duten estatu-mailakoak barne, %1,23koa izan zen; Estatu osorako adostutakoa (%1,47) baino pixka bat txikiagoa. Gure Erkidegoan negoziatutako hitzarmenen batez besteko soldata-igoera %1,16koa izan zen, EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenena baino 21 ehunen txikiagoa (%1,37).

Erosteko ahalmenaren bilakaera baloratzeko aintzat hartu behar da prezioen mailaren igoera handiak markatutako ingurunean gaudela, batez ere 2021eko bigarren seihilekoan, eta adierazi behar da 2021erako adostutako batez besteko igoera EAEko urte arteko inflazioaren (% 6,4) azpitik eta urte osorako gure Erkidegoan erregistratutako batez besteko inflazioaren (% 3,1) azpitik kokatu zela.

Greba gehiago, baina inplikaturako pertsona gutxiago

2021ean guztira 824 lan-gatazka kolektibo erregistratu ziren EAEn; horietatik 248 grebak izan ziren, eta 576 Precora aurkeztutako gatazkak. Aurreko urtearekin alderatuta, grebek gora egin zuten arren, nabarmen murriztu zen grebetan parte hartu zuten pertsonen kopurua. Aitzitik, zertxobait jaitsi ziren Precora aurkeztutako gatazkak, baina ez kaltetuen kopurua, handiagoa izan baitzen.

2021ean gatazkak industrian kontzentratu ziren: gatazken %40,7 jaso zituen, eraginpeko langileen %54,1 eta lan egin gabeko lanaldien %80,9. Bestalde, zerbitzuetan izan ziren greba guztien %54,1, partaideen %42,2 eta lan egin gabeko lanaldi guztien %17. Eraikuntzako grebak, berriz, guztizkoaren %5,2 izan ziren, eragindako langileak %3,7 eta eskatutako lanaldiak %2,1 (ez zen grebarik erregistratu lehen sektorean).

2022 urtea

Egungo egoera eta aurreikuspenak

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2022rako BPGaren %4,5eko hazkundera aurreikusten du. Kalkulu horretan oinarrituta, pentsa liteke laugarren hiruhilekoan 2019ko laugarren hiruhilekoaren aberastasun-maila errekerperatu ahal izango dela.

Kontratu gutxiago eta afiliazio handiagoa

2022ko lehen seihilekoan, EAEn 411.957 lan-kontratu sinatu dira, 2019ko aldi berean baino %15,5 gutxiago (sinatutako 487.565 kontratu kontabilizatu ziren orduan). Hala ere, Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsonen kopurua (erregimen bereziak eta autonomoak barne), 2019ko ekainean 973.417 izatetik 2022ko ekainean 987.179 afiliatu izatera igaro da; 13.762 pertsona gehiago dira (%1,4eko hazkundera).

Gizarte Segurantzako afiliazioa handitu izanak, sinatutako aldi baterako kontratuen kopurua murriztu izanak eta kontratu mugagabeak handitu izanak enpleguaren kalitatea hobetu dela adierazten du.

Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko afiliazioaren hazkundera %2,3koa izan da aipatutako aldi horretan, 17.362 pertsona gehiago. Lanaldi osoko kontratu mugagabeak dituzten afiliatuak %10,1 gehitu dira; lanaldi partzialeko kontratu mugagabea dutenak, %25,7; eta aldizkako kontratu finkoa dutenak, %62. Murriztu egin dira lanaldi osoko behin-behineko kontratua duten afiliatuak (-% 20,6) eta lanaldi partzialeko behin-behineko kontratua dutenak (-% 32,2).

2022ko lehen hiruhilekoko langabezia-tasa 2019koa baino txikiagoa da

2022ko lehen hiruhilekoaren amaieran, EAeko langabezia-tasa %9,1ekoa izan zen, 2019ko aldi berekoa (%10,4) baino txikiagoa. 2022an erregistratutakoa baino tasa txikiagoa aurkitzeko, 2010era jo beharko litzateke.

Negoiazio kolektiboa

Maiatzean, indarraldi arrunteko hitzarmenak zituzten langileak 187.953 ziren (%31,2), eta 2022ko hasieratik 28.106 pertsona gehiago. Indarraldia luzatuta zuten eta berriro gabe zeuden hitzarmenak 358.731 ziren (%59,4), eta urtarrilaren 1ean egoera horretan zeudenak baino 27.581 gutxiago. Bestalde, hitzarmenak bertan behera eta berreskuratzeko dauzkaten langileen kopurua (% 9,4) 214 pertsonatan murriztu zen.

Soldata-igoerak

EAeko langileengan eragina duten indarreko hitzarmenetan 2022rako adostutako batez besteko soldata-igoera %3,75 da. Soldata-igoera hori desberdina da Euskal Autonomia Erkidegoan eragina duten eta Estatuan negoziatu diren hitzarmenetan, %2,28ko batez besteko igoera jasotzen baitute (%4,22 enpresako hitzarmenetan eta %1,74 sektorekoetan), edo Euskal Autonomia Erkidegoan negoziatutakoetan, %4,79ko batez besteko igoera jasotzen baitute (%4,13 enpresakoetan eta %5,10 sektorekoetan). Nabarmentzekoa da EAEn sinatutako sektoreko hitzarmenek jasotzen dituztela soldata-igoerarik handienak, eta horiek eragiten dietela persona gehienei (71.318).

Hitzarmenak indarrean dituzten langileen %56,2k soldata-igoera finkoa dute 2022rako, KPIari lotu gabea, eta ez dute berrikuspen klausularik. Bestalde, hitzarmenak indarrean dituzten langileen %43,8k KPIaren aldaketa sartzen dute, osorik edo modu mugatuan, 2022an aplikatu beharreko soldata-igoerak kalkulatzeko.

Txosten osoa kontsulta daiteke webgune honetan: www.crl-lhk.eus